

Herri Aldizkaria

Otamotz

2006ko urtarrila 113. alea



Hirugarren adinekoak: Dena da gutxi gure zaharrentzat

KOLABORAZIOA: JOXE MARI GABIRIA
ELKARRIZKETAK: MERTXE GALDOS - RAMON ESNAOLA
IZERDI PATSETAN: JOANA CARRO, PATINAIA IRAKASLE

La★Salle Legazpi

Zumarraga - Urretxu



Irakasten eta hezitzen

Matrikulazio epea: otsailaren 6tik 17ra

☎ 943 72 15 14 - Fax: 943 72 56 73

ARGAZKI ZAHARRA



Honako hau bai argazki zaharra! Urretxuko Musika Bandako kideei atera zieten 1922 inguruan.

Goiko ilaran, ezkerretik eskubira: Casiano Esnaola, Gracian Urain, Imaz, Felix Benito, Laureano Mendia, Daniel Ibarzabal, Juan Jauregi eta Jose Arrizabalaga "Jose Potolo".

Erdiko ilaran: Estanis Gorospe, Martin Grandes, Jose Maria Toledo, Vicente Azkarate, Jesus Benito, Isidro Jauregi, Andres Txintxurreta, Felix Uribesalgo eta Calixto Perez.

Eserita: Gaspar Gabilondo, Facundo Azkarate, Toribio Navarro (zuzendaria) eta Francisco Azkarate.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73




Koordinatzailea: Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KLIK ETA KLIK



KLIK ETA KLIK



Presoen alde

Bertsolari Txapelketa



Hilabete honetako argazkiak Gotzon Aranburuk atera ditu.

Hirugarren adina: dena o

Hirugarren adinekoek geroz eta pisu handiagoa dute gure gizartean. Biztanleriaren portzentaia geroz eta handiagoa osatzen dute eta horrek ondorio ugari ditu: egungo gazteentzat pentsiorik izango ez dela, aurrekontuaren gero eta zati handiagoa zaharrentzat zuzendutako zerbitzuetan inbertitu behar dela... hauteskundeetan nork irabaziko ere aurki euren esku izango da.

Urretxun eta Zumarragan ere zeresan handia ematen ari dira, bai jubilatuen egoitzetako kideek antolatzen duten ekitaldi piloarengatik, bai ospitale inguruan zaharrei zuzendutako hainbat azpiegitura eraiki behar delako. Bi herrietako Gizarte Zerbitzuetako zinegotziekin, Urretxuko Egunerako Zentroko langileekin eta bertara joaten den Juana Bergararekin hitz egiten izan gara.



Hirugarren adinekoentzako egoitzetan bizi dena gertutik ezagutzeko Urretxuko Egunerako Zentrorra jo dugu. Apirilaren 22an 12 urte beteko dira ireki zela. Aitor Gago, Agurtzane Regorigo eta Izaro Idigorasek hasieratik lan egiten dute bertan. Loren Orobengoak, berriz, bi urte eta erdi daramatza.

Aitor Gagok Matia Fundazioan lan egin zuen hiru urtez, herrira itzultzeko

aukera suertatu zitzaion arte. "Ez nuen ikasten jarraitzeko gogorik eta Matian lan egiten zuen izebak bertan jendea behar zutela esan zidan".

Agurtzane Regorigok ere Donostian lan egin zuen Urretxun hasi aurretik. "Guritze Gorriaren ospitalean erizain laguntzaile izan nintzen bi urtez, gero bi udatan Zumarragako ospitalean lan egin nuen eta, azkenik, hemen hasi nintzen".

Izaro Idigorasek, berriz, Urretxuko Egunerako Zentroa besterik ez du ezagutu. "Gutxitu psikikoen heziketa ikasten ari nintzen eta bukatu baino pixka bat lehenago hemen hasi nintzen". Bukatzeko, Loren Orobengoak erizain laguntzaile ikasi zuen eta beti zaharrak zaintzen lan egin du.

Gago, Idigoras eta Regorigo izan ziren Egunerako Zentroa abian jarri zute-

a gutxi gure zaharrentzat

nak. "Hasi ginenean egunerako zentro bat zer zen ere ez genekien, Urretxukoa lehenengotakoa izan baitzen. Guk hiroruk antolatatu dugu eta atera dugu aurrera. Hasi aurretik Donostiara joan ginen han zeudena ikustera, baina ez zuten hemen egin nahi zenarekin zerikusirik. Besteak 9.00etan ireki eta 17.00etan ixten dira. Hau, berriz, beranduago ireki eta ixten da. Hala, afaria ere hemen ematen diegu; behar gehiago asetzen ditugu".

Hasierako garaiak ez omen ziren batere gozoak izan. "Dena berria zen, bai zaharrentzat, bai Udalarentzat eta bai guretzat. Ez zuten etorri nahi, ez baitzekiten nora zetozen. Etorri eta gero ez zirela etxera bueltatuko uste zuten. Orain informazio gehiago dago eta familiarekin etortzen dira ikustera".

Familia askorentzat ere gogorra da senitarteko bat Egunerako Zentroan uztea. "Oraindik askori kostatzen zaie, kotzientzian harra izaten dute. Dena den, geroz eta zahar gehiago daudenez eta behar gehiago dituztenez, jendea jada kontzientziatua dago: badakite zer nolako tokia den, zein jendek lan egiten duen... Hau beti dago beteta".

Zaharrek ere ez dute jada horrenbesteko trabarik jartzen. "Askok elkar eza gutzen dute eta badakite hemendik etxera joaten direla. Batzuei gogorra egiten zaie

etxea uztea, baina bi egunetan moldatzen dira. Gainera, etxean baino zaintza handiagoa jasotzen dute, antzeko egoeran dagoen jendearekin daude, jarduerak dituzte...".

Gago Idigoras eta Regorigo egunerako zentroak bizi izan dituen aldaketa guztien lekuko izan dira. "Hasiara batean oso talde txikia ginen: 7-8 aitona-amona besterik ez genituen eta orain, berriz, 30 bat ditugu. Tarte batean 12-16 izan ziren, baina gero handitu egin zen".

Langile kopuruak ere gora egin du, noski. "Lehen hiruok besterik ez geunden eta dena egin behar genuen. Orain monitore bat ere badago, txostenak egiten

"Aspaldi sartu direnak pixkanaka okerrera egiten ikustea oso gogorra da"

dituena eta animazioaz arduratzen dena. Dagoeneko gure lana soilik, auxiliar lana, egiten dugu: zaharrei harrera egin, zaindu, bazkaria eta afaria eman, garbitu, behar dituzten sendagaiak eman...".

Zaharren senitartekoekin harremana ere badute, noski. "Denetik dago. Batzuk hemen utzi eta eurretaz ahazten dira. Beste batzuk, berriz, egunero-egunero etortzen dira edota deitu egiten dute".

Egunerako zentrorra joaten diren zaharren ezaugarriak ez omen dira aldatu urte hauetan guztietan. "Antzera etortzen dira. Ondo daudenak ez dira hona etortzen. Diputazioak jarritako mediku batek galderak egiten dizkie eta erantzunen arabera euren menpekotasun maila zehazten du".

Gehienetan okerrera egiten duen jendearekin lan egitea oso gogorra da. "Lan polita da, baina oso gogorra da eta gutxi baloratua dago, batez ere ekonomikoki. Udalak enpresa bati kontratatu dio zerbitzu hau. Bestalde, fisikoki oso neketsua da. Izan ere, pisu handia mugitu behar da. Gainera, jendeak okerrera nola egiten duen ikusten dugu eta hori oso gogorra da. Beste batzuk dagoeneko oso gaizki etortzen dira hona eta euren lekua ez litzateke hau izan behar".

Gure lau solaskideek diotenez, ez dago erabat ohitzerik. "Pertsonekin lan egiten dugu eta, askotan, hemendik atera ondoren etxera eramaten ditugu hemen bizitakoak. Aspaldi sartu direnak pixkanaka okerrera egiten ikustea oso gogorra da. Askori kariñoa hartzen diegu. Beraietako batzuek ere maitasuna ematen dute".

Juani Bergara: "Zaintzaileak oso ondo portatzen dira"



Zumarragako Areitzagabaso baserrian jaiotako Juani Bergara Urretxuko egunerako zentroa ireki eta berehala hasi zen bertara joaten, beteranoena dugu beraz. Zaintzaileek dagoeneko beraiek baino gehiago agintzen duela diote. "Hori oso zaila da, sorgin samarrak dira eta", dio Juanik txantxetan.

Gustura omen dago. "Zaintzaileak oso ondo portatzen dira, bai nirekin eta bai besteekin ere; baina norberak ere jakin egin behar du portatzen. Batzuk ez dira ondo moldatzen ez zaintzaileekin eta ezta gurekin ere. Ez nau

asko eragiten, dagoeneko denetara ohituta bainago. Hemendik pasatu diren guztiekin... Ahazten ez direnak ere ikusi ditut".

Ez omen zaio eguna luze egiten.

"Denetik egiten dut: hemen dagoen lehengusu batekin jokoan egin, haizea hartzerantz irten...".

Gaixorik heldu zen, baina egun gauza asko bere kabuz egiteko gai da. "Enkarguak egiteko-eta ateratzen naiz. Bestela, alabarekin bizi naiz. Hemen ez nagoenean etxeko lanetan eta bilobekin laguntzen diot, alabak beste la ere nahiko lan badu eta".

HILABETE HONETAKO GAIA



Rakel Blanco

Zumarragako Udaleko
Gizarte Zerbitzuetako batzorde burua

"Autonomoak diren pertsonen herriko zerbitzuak erabiltzea nahi badugu, garraio publikoa ospital ingururaino heltea bideratu behar dugu. Ez dugu bertan geldirik egotea nahi, euren autonomia bultzatu nahi dugu".

"Askotan beharra badago, baina ez nahikoa diru eta beste behar batzuek lehenetasuna dute".

"Zain daudenen zerrenda luze samarra da eta batzuek 8 hilabete eman izan dituzte zain. Dena den, zerrendaren kontua erlatiboa da: batzuetan gizonezkoentzat tokia badago, baina zerrendan gizonezkoentzat ez, esaterako. Bolada kontua da. Zoritxarrez, tokiren bat libratzen bada, norbait hil delako da".

"Adineko sendiak euren kargu dituztenek ere laguntza behar dute. Hori dela eta, hitzaldiak-eta izaten dira eurentzat".

"Egin behar diren guztiakin Foru Aldundiak 2008rako egin duen beharren azterketan azaldutako premiak asetuko dira, baina badakigu errekursoak beharren atzetik joan ohi direla. Hauek guztiak abian direnerako premiak handiagoak izango dira, seguraski".

FAUSTINO ORBEGOZO GERIATRIKOA:

Menpekotasunen bat duten pertsonen zuzendua dago. Tokiren bat libre gelditzen denean geriatrikoak Aldundiari jakinarazten dio eta honek, bere eskaera zerrendan oinarrituta, nor bidali erabakitzen du. Geriatrikoaren jabea Fundazioa da, baina ez du funtzionamenduan parte hartzen. Hau Udaleko zinegotziek, alderdi politikoetako ordezkariak, elkarteetako kideak eta Mertzadariarrek osatzen duten batzorde gidiariaren esku dago. 48 laguntzako tokia dago eta bertan psikologia, ileapaindegi, animazio, garbiketa, sukaldaritza, medikuntza, podologia... zerbitzua eskaintzen da. Bertakoak han bizi dira, baina batzuek autonomia apur bat dute eta herrira jaisteko moduan dira. Hori bultzaten da, gainera. Geriatrikoko plazak balio duenaren zati bat Aldundiak ordaintzen du eta bestea zaharrak edo bere familiak. Zumarragako Udalak animazio soziokulturalerako dirulaguntza ematen du urtero. Geriatriko berria irekitzen denean, hau itxi egingo da. Faustino Orbegozo Fundazioak eta Udalak ez dute erabaki oraindik zer egin hutsik geldituko den eraikinarekin.



GERIATRIKO BERRIA:

Iazko urte amaieran proiektuak aurkezteko lehiaketaren oinarriak argitaratu ziren. Lehiaketa irabazten duen enpresak 6 hilabeteko epea izango du azken proiektua aurkezteko. Urte bukaeran-edo hasiko da obra eta 18 hilabeteko epea izango dute bukazteko. 2008an irekitzea espero da, beraz, gutxienez 106 laguntzako tokia izango duen eraikina. Gela %60 Foru Aldundiaren esku izango da eta gainontzeko %40a zerbitzua kudeatuko duen enpresaren esku izango da. Gela guztiak indibidualak izango dira eta komuna izango dute.

EGUNERAKO ZENTROA:

Autonomoak diren pertsonen zuzendua dago, nahiz eta praktikan menpekotasuna dutenak gehiago zabala diren. Autonomoak diren pertsonen kasuan, zati bat euren ordaintzen dute eta bestea Udalak. Urretxuko Egunerako Zentroak 30 laguntzako lekua du. Zumarragan Foru Aldundiak beste bat egin behar du, geriatriko berriaren ondoan. Hau 25 laguntzako izango da. Urretxukoan goizeko 11:00etan sartzen dira eta iluntzeko 20:00etan atera, afalostean. Afariak ematen dituen egunerako zentro bakarra da. Bertan animazio, garraio, jangela, garbiketa eta osasun zerbitzua ere eskaintzen zaie. Garraio zerbitzua Gurutze Gorriak eskaintzen du.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

2006ko urtarrila

HILABETE HONETAKO GAIA

Irri Makila jubilatuen antzerki taldeko kideak.



JUBILATUEN EGOITZAK:

Herri bakoitzak berea du, Urretxun Aterpe eta Zumarragan Gure Txoko, baina joatea atsegin duten gehienak bietako bazkideak dira. Hala, bai batak eta bai besteak 1.000 bazkide inguru dituzte. Bertan, hainbat ekintza dituzte: abesbatza, antzerki taldea, ikastaroak, bingo-jokoa, karta-joko lehiaketak, dantzaldiak, hitzaldiak... Itarte Etxeko obra bukatzen denean eta Kultur Etxea egiten denean Zumarragako jubilatuek eraikin osoa izango dute eurentzat. Besteak beste, podologia zerbitzua eta informatika gela jartzeko baliatu nahi da. Bestalde, Zumarragako Udalak Leturietan bigarren jubilatuen egoitza egiteko asmoa du herriaren goialdean bizi direnentzat. Aurten ireki nahi da eliza zegoen tokian.

APARTAMENTU BABESTUAK:

Geriatrako eta egunerako zentro berrien inguruan Zumarragako Udalak apartamentu babestuak egin nahi ditu. Asmoa gutxi gorabehera besteak irekitzen diren garaian irekitzea da. 45 metro karratuko 35-40 apartamentu egingo dira. Rakel Blanco Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuaren ustez zerbitzua eta eskakizun zerrenda Udalak kudeatu beharko lituzke. Apartamentu hauek autonomoei zuzenduak daude. Zainketa behar handirik ez duten baina euren etxeetan bizitzen jarraitzeko zailtasunak dituzten adinekoei, etxeaz gain, otordua eta zainketa eskaintzen zaie bertan. Helburua euren bizi-kalitatea hobetzea da.

ZENTRO SOZIOSANITARIOA:

Geriatrako egin behar den eremuan Osakidetza lursail bat du eta Rakel Blanco zinegotziak begi onez ikusiko luke bertan zentro soziosanitarioa egitea. "Donostiako Antiguu auzoan badago, baina nire ustez inguru honetan ere behar da", dio Blancok. Horretarako, Osakidetza eta Foru Aldundia ados jarri beharko lirake. Zentro soziosanitarioa ospitala eta zaharren egoitza arteko zerbitzua da: ospitalean alta jaso, baina geriatrakoan edo etxean izan dezaketen zainketa baino handiagoa behar dutenentzat.

TELEALARMA:

Zerbitzu honen eskaria igo egin da azkenaldian. Berau lortzeko telefono linea besterik ez da behar. Etxean bakarrik bizi den zaharrak botoi bat duen lepokoa jartzen du eta erorketaren bat-edo duenean botoiari eman. Hala, larrialdi zerbitzuek bere deia jasotzen dute.

www.megadenda.com

ramos
Bergara, 6
20005 Donostia
Tel.: 943 42 63 50

bilintx
Fermin Calbeton, 21
20003 Donostia
Tel.: 943 42 00 80
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon, 8
20302 Irun
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g
20400 Tolosa
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12
20570 Bergara
Tel.: 943 76 40 50

Megadenda
zure aukera musika eta liburutan

tarjeta megadenda txartela

2006ko urtarrila

HILABETE HONETAKO GAIA

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA:

Zumarragan 74 lagunek jasotzen dute laguntza hau eta Urretxun 60ren batek. Etxeko lanetan, dutxatzen... laguntzen zaie, baina egiteko gai diren horiek guztiak egiten jarraitzea bultzatzen da. Gizarte langileek bakoitzaren behararen arabera laguntzen diete. Batzuk egoitza batean egoteko premian dira, baina tokia lortu bitartean laguntza hau jasotzen dute. Duela gutxira arte Udal bakoitzak bere tarifak eta araudia zituen etxez etxeko laguntzari zegokionez, baina duela gutxi bateratu egin dira.

LARRIALDIRAKO LAGUNTZAK:

Aindekoaren diru sarrera aurrera egiteko nahikoa ez denean ematen da. Eusko Jaurlaritzak ematen ditu, baina Udalek tramitatzen dituzte. Itziar Agirre Urretxuko zinegotziaren esanetan, Eusko Jaurlaritzak ematen duen dirua ez da legeak dionaren arabera behar duten guztiei behar adina emateko heltzen. "Behar duten guztiei ematen diegu, baina ez behar bezainbeste. Eusko Jaurlaritzari diru gehiago emateko eskatzen diogu, baina legeak dionaren arabera, diru asko da eman beharrekoa".

ONARRIZKO ERRENTA:

Tramitazioa Udalek egiten dute, baina Eusko Jaurlaritzak ematen du dirulaguntza. Inongo dirusarrerarik ez dutenei edo pentsio oso txikia dutenei, onarrizko errentaren %85era heldu arte ematen zaie. Hau jasotzen duten batzuek larrialdirako laguntza ere jasotzen dute, onarrizko errentarekin ezin baitute dituzten gastuei aurre egin. Azken bi laguntza hauek jasotzen dituzten asko alargunak dira. Urretxun, adibidez, 18 urtetik gorako 90 lagunek jasotzen dituzte laguntza hauek eta horietatik 30 bat alargunak dira. Izan ere, alargunek senarraren soldataren edo pentsioaren erdia soilik kobratzen dute.



Nagusilaneokoe Geriatrikoan antolatutako festa.

BESTE ZERBITZU BATZUK:

Adineko senitartekoak euren kargu dituzten familientzat ere zenbait zerbitzu daude. Hala, Aldundiaren *Sendian* programaren barne, asteburuan Egunerako - Zentrora eraman ditzakete. Bestalde, oportretan egoitzara eramateko aukera dago. Harrera familiak ere badaude, Nagusilaneokoe adinekoek beste adineko batzuei laguntzen diete... Rakel Blancok estima handian du Nagusilaneokoen lana. "Batzuentzat zein besteentzat oso ona da. Jubilatuek denbora asko dute eta beste batzuei laguntzea oso onuragarria da eurentzat. Laguntza jasotzen dutenentzat, zeresanik ez".



Itziar Agirre

Urretxuko Udaleko
Gizarte Zerbitzuetako batzorde burua

"Geroz eta urte gehiago bizitzea lortzen ari gara, baina ez bizi kalitatean gero eta gorago egitea. Adin batetik aurrera jendeak dependentsia handia du".

"Jubilatuaren Egunean geroz eta jende gutxiagok parte hartzen du eta jubilatuta jende asko ez da Aterpera joaten. Gure ustez hori zenbaiten artean irudi txarra duelako da. Hori dela eta, itxuraldatu egin nahi dugu; besteak beste euskaldundu. Izan ere, Aterpera joaten direnek ez dute jubilatuta kolektibo osoa ordezkatzen. Distorsio bat dago, Urretxu ez baita jubilatuen egoitzan ikusten den bezalakoa".

"Gainera, jubilatuen bizi baldintzak aldatu egin dira. Lehengoek pentsio txikiagoak zituzten eta Aterpe diru gutxi zuten horientzat aukera zen. Egun, gehienek pentsio txukunak dituzte eta ez dute euren burua jubilatuen egoitzan ikusten. Beste jarduera batzuk antolatu nahi ditugu jubilatuen egoitzara beste jende mota bat erakartzeko".

"Egoitza pila bat egiten ari dira Plan Gerontologikoaren arabera, baina datorenari aurre egitea ez da erraza izango. Foru Aldundiko aurrekontuaren zati handiena Gizarte Zerbitzuentzat da dagoeneko. Urretxuko Udalean ere partidarik handiena guretzat da, alde handiarekin gainera".

"Alargunei pentsioa igotzen zaien heinean, beraiei ematen diegun dirua beste zer edo zertarako erabili ahal izango dugu".

ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

Adineko jendearentzat nahikoa zerbitzu al dago?



Koro Legorburu

Zerbitzu gehiago eskaini behar direla uste dut, geroz eta adineko jende gehiago dago eta. Nire ama ahizparekin bizi da eta ondo moldatzen da. Dena den, ez zait gaizki iruditzen jendea geriatrikoetara eta eguneko zentroetara eramatea, bertan oso jende profesionalak lan egiten baitu. Pentsioen kontua okerragoa da: nire ama alarguna da eta eskerrak gure laguntza duen, ematen diotenarekin ez dago hilabete bukaerara heltzerik eta.



Kizkitza Zufiria

Egia esan, ez dut gai hau gehiegi menperatzen, baina adineko jendearekin lan egiteko jende gehiago behar dela uste dut. Pentsioak ere nahiko eskasak direla esaten da eta guri ere halakoak edo okerragoak tokatuko zaizkigula uste dut. Gure aitak 81 urte ditu eta etxean bizi da, oso ondo dago gainera.



Joxe Zabalegi

Eskaintzen zaizkigun zerbitzuak ondo daudela uste dut. Jubilatuen egoitzako eta Goierriko bazkidea naiz, badakizu, kartetan jokatzeko-eta. Urte asko daramatzat jubilatuta eta ongi gainera: emaztearekin bizi naiz eta ez dut kexatzeko arrazoi handirik.



Ramon Soraluze

Jubilatuta nago, baina Jubilatuen Egoitzara gutxitan joaten naiz. Alferkeriagatik-edo izango da. Hurbiltzen naizenean kafea hartzera izaten da. Guri eskaintzen dizkiguten zerbitzuak ondo daudela uste dut. Bestelakoan alabarekin bizi naiz eta jasotzen dudan pentsioarekin nahikoa dut. Ezin naiz herritik asko irten, baina tira!

ETXABURU

merenda-lekua



Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

Montajes e Instalaciones Electricas

HERCE
S.L.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

TABERNA

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Denda alokatu edo saltzen da Antzuolan
Martxan dagoen argazkidenda-bitxitegia

943 78 70 66
635 757 271

BIONA

ARozTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

2006ko urtarrila

Mertxe Galdos: 27 urte e



19 urte igaro ditu kartzelan Mertxe Galdosek, 27 herritik kanpo. 2001eko apirilaren 11n zigorraren hiru laurdenak bete bazituen ere, iazko irailaren bukaeran berreskuratu zuen askatasuna. Dagoeneko lanean ari da eta, egindako ikasketak medio, Urretxuko Egunerako Zentroan praktikak egiten ere bai. Kartzelan bizitakoaz eta handik irtetea aurkitutakoaz hitz egin dugu berarekin.

27 urte eta gero, nola ikusten duzu Urretxu-Zumarraga?

Aldatuak aurkitu ditut. Etxebizitza asko egin dira. Lehen kanpoaldean kokatzen genituen auzoak orain ia herri erdian daude. Azpiegitura aldetik, aldaketa handiak aurkitu ditut. Nahiz eta saihesbidearekin trafikoa kanpoaldetik bideratu den, herri barruan kotxeak gainezka daude.

Gizartea ere asko aldatu da.

Oraindik ez dut neure burua horretaz hitz egiteko gai ikusten. Izan ere, orain arte alde ona besterik ez dut ikusi. Ez dut inorekin inongo gaitan sakondu edota bere arazoez hitz egin. Senideen eta lagunaren artean ere ez dut aldaketa handirik nabaritu, kartzelara bisitan joaten zirenekin bainabil. Bertsolari Txapelketako bi kanporaketatan izan nintzen eta hor bai nabaritu nuela aldaketa handia! Gaiak, bertsolarien gaztetasuna, gaiak lantzeko modua... Nork esango zidan niri bertsolarien homosexualitateaz hitz egingo zutenik!

Ordenadoreak, telefono mugikorrak... berriak izango dira zuretzat.

Ordenadorea erabiltzen ez dut ikasi oraindik, ilobak laguntzen dit. Mugikorra badut, baina ez dut oso gustuko. Gehiegi erabiltzen dela iruditzen zait.

Asmakizun ona da, baina neurrian erabiltzen jakin behar da. Guk geuk sortzen ditugu beharrak.

Nola sentitzen zara, etxean adibidez, gelaz gela arazo, burdinazko ate edo barrote gabe ibiltzen?

Oso ongi. Egia esaten badizut lehenengo momentutik beti ateak irekita eta barroterik gabe egon izan banintz bezala sentitu naiz. Dirudienez nire inkonzienterako ere, ezohikoa barrote artean egotea zen. Ez naiz sekula esnatu rekuentoen zain edo espetxean nagoela pentsatuz.

Nolakoa zen irten aurretik kartzelan bizi zenuen egoera?

Nahiko lasaia. Aurretik egon nintzen espetxeetan bizi baldintzak askoz ere gogorragoak izan nituen. Adibidez, Malagan isolamenduan 6 urte izan nintzen inor ikusi gabe, beti bakarrik. Topasen berriz, nahiz eta lehenengo graduan egon (Malagan bezala) modulo arrunt batean nongoen eta gosaria, bazkaria eta patioko lau orduak beste presoekin batera egoten nintzen, honek suposatzen duenarekin, hau da, beste presoekin (kide edo sozialak) harremanak izatea eta eguneroko gorabeherak konpartitu ahal izatea.

Nola aldatu da, politika penitentziarioa urte hauetan? Eta

eta gero, gizartera buelta

bizi baldintzak?

Hasieran preso politiko gehienak Euskal Herritik urrun baina bi edo hiru kartzelatan geunden. Dispersioa dela eta, sakabanatuak, asko bakarrik eta gehienak oso baldintza gogorretan aurkitu ginen. Horri aurre egiteko eta bizi baldintza duinak lortzeko borroka asko burutu behar izan genituen. Gaur egunean, dispersioa eta sakabanaketa mantentzen da, ikasteko aukerak lehen murriztuak baldin baziren, orain ezinezkoa da, matrikulatzen ere ez baldin baitituzte uzten. Komunikazio mailan bisitan joan daitezkeen senitarteko eta lagunak kopurua gutxitua izan da, espetze gehienetan hamar lagunetara mugatu dute. Kode zaharrekin legez dagozkien erredentzioak ez dira aplikatzen eta borroka bidez lortutako zenbait lorpen, behin eta berriz kentzen dituzte, eta abar luze bat.

Garai batean Euskal Preso Politikoaren Kolektiboko (EPPK) ordezkaria izan zinen. Ze arazo aurkitzen ditu kolektiboak beste eragileekin harremanak izateko orduan?

Alde batetik gobernuak ahal zituen eta dituen traba guztiak (eta asko dira) jartzen ditu. Hala ere, nire ustez kalean dauden eragile gehienek ez dituzte indarrean jartzen presoekin harremanak izateko mekanismo guztiak. Askotan entzuten diegu euskal presoek, kolektibo gisa, gainerako eragileekin harremanak izateko eskubidea dutela; baina hori aurrera eramane edo gauzatzeko ez dituzte bitarteko txikiak ere ipintzen.

Ze egoeratan dago EPPK?

700 bat euskal preso, 70 kartzela-

tan sakabanatuak daude. Hala ere, traba, presio eta abar handia gaudituz, kolektibo batuta dago, eta egoera edo edozer gairi buruz (sailkapenak, sailkapen) ekarpenak egiteko prest.

Orain bisitan joatean, nola bizi dituzu bisitak kristalaren beste aldetik?

Pozik joaten naiz bisitetara. Gogorra bada kristal baten atzetik ikusi eta egon beharra, mingarriagoa da, niretzat behintzat, bisita bukatu ondoren maite

“Kolektiboaren izaera politikoa onartzen bada, pausu handia izango da gatazkaren konponbidean”

dituzun lagunak eta kideak han utzi beharra. Horrez gain, orain hobeto konturatzen naiz dispersioak zer suposatzen duen presoekin senide eta lagunentzat.

Kode penalaren aldaketak zer suposatu du presoentzat?

Bizi guztirako kartzela zigorra suposatzen du.

Urte asko egon zara kartzelan eta oso garai ezberdinetako kide asko ezagutuko zenituen, nolakoak izan ziren zuen arteko harremanak?

Esan behar dut, azkeneko urteetan

belaualdi aldaketa nabarmentzen hasita nengoela, hala ere, beti izan ditut harreman onak, maitagarriak eta kide askorekin oso sakonak.

Azaldu, mesedez, zer den isolamendu egoeran egotea.


Kontuan izan behar da, isolamenduko moduloetan egoera desberdinak daudela. Batzuetan euskal presoek beteak egon daitezke, nahiz eta bizibaldintzak murriztuak izan, kideen elkartasuna, berotasuna eta abar hor daude. Baina gehienetan, isolamenduko moduloetan euskal presoek bakar bakarrik egon behar izaten dute. Egoera hauek, gehienetan oso gogorrak izaten dira. Kartzelan bere eskuetan zaude-la sentiarazten dizute eta gainera horrela dela badakizu. Hori beste kideren baten basbesik ez duzunean oso gogorra da, momentu txar asko pasatzen dira.

Nola bizitzen da presoak Euskal Herriratzeko aldarriarekin eginiko gose greba bat?

Gose greba egitea oso gogorra da bai fisikoki eta bai psikikoki ere. Ez da berdina gainera, kideen babesarekin egin edo bakarrik egin behar izatea, espetze edota moduloan besterik ez dagoelako. Hala ere, eskubideen alde borrokatzeak gaitasuna ematen dizu indarrak berrituz aurrera jarraitzeko.

Bukatzeko...

Denoi eskatuko nizueke, Euskal Presoen estatus politikoaren aldeko eskakera aldarrikatzea, kolektiboaren izaera politikoa onartzen badute, aurrerapausu handia izango da gatazkaren konponbidean.



-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - ☎ 943724012 - Faxa: 943725431 - ZUMARRAGA



Joxe Mari Gabiria

Haritz eta pago, gero eta gutxiago

Hemendik aste batzuk barru ospatuko da gure artean Zuhaitz Eguna. Otsailean egin ohi da batzuetan, martxoan ere bai, inoiz. Baina, beti ere, naturaren zikloari jarraiki, zuhaitzaren izerdia mugitzen hasi baino lehen. Hala komeni izaten da zuztarrak lurrari ondo itsasteko.

Zuhaitz Egunaren ospakizunak oihartzun handia izaten du komunikabideetan. "Halako eta halako ikastetxeko haurrek hainbeste zuhaitz landatu zituzten atzo" irakurri izan dugu egunkarietako kronika lokaletan.

Ez naiz ni hasiko ekitaldi horiek kritikatzeko, egin beharrekoak direla uste baitut, baina neumoniak jotako gaixoa aspirina bakarrik emanez sendatu nahi izatea bezala ez ote den ustea dut. Gure basoak neumoniak jota baitaude.

NOIZ ETA NOLA SORTU ZEN GAITZA ?

Erdi Arotik XIX. mendera arte baso eremu handiak desagertu ziren gure inguru hauetan. Burdinoletan behar zen egur-ikatzak egiteko eta itsasontziak eraikitzeke, batez ere. Nonbait irakurria dut 1650-1814 artean, Gipuzkoan, 20.000 hektarea baso eraitsi zituztela egin behar horietarako, lurraldeko eremu osoaren %10.

Baina garairik okerrean etortzeko zen artean. XIX. mendea zoritarrekoa izan zen gure basoentzat. Gerra ugari izan ziren (garai horretakoak dira bi gerrate karlistak), erakunde publikoak zorretan sartu ziren, eta zorrei aurre egiteko herri lurrak saltzera jo zuten.

Lurjabe berriek, inbertsioei etekin azkarra atera nahirik, baso eremu handiak bota zituzten urte gutxitan. XX. mende hasieran gure mendi gehienak soilduta zeuden.

EZ GARA HAIN ONAK BENETAN...

Estatistikaren datu hotzei begiratu gero, basogintzari dagokionez, euskaldunok munduko onenen artean agertzen gara. Mundu osoan, %27a da baso, Europako Batasunean %36a eta Euskal Herrian %60a inguru. Beste datu jakingarri batzuk: Euskal Herrian biztanleko 250 zuhaitz daude, eta milioi bat tonelada oxigeno sortzen dute urtean. Datu oso onak dirudite, baina ez pentsa, ez gara hain onak benetan. Izan ere gure inguruko baso eremu gehienak produkzioarekin lotuta daude: landatu, hazten utzi eta bota. Eta horretarako hazkunde azkarreko espezieak dira emankorrenak, pinuak alegia. Gipuzkoan, basoaren %40a da pinudi, pagoa %14a eta haritz eta artea %11a. Gure inguru hurbilago honetan, berriz, oraindik eta handiagoa da insignisaren nagusitasuna. Irimo, Izazpi edo Argixao aldera joan eta begiratu besterik ez dago.

EZ GAUDE KONFORME...

Baso kopuru nahiko handia daukagu, baina daukagun baso motarekin ez gaude konforme. Eta errudun bila hasten gara berehala. Ekologiaren izenean, baserritarren aurkako kritikak

sarri entzuten dira oraindik, pinuak sartu izan dituztelako. Baina ekologismo merkea iruditzen zait hori. Baserritarrak ere nonbaitetik bizi beharra dauka, eta, beste aukerarik ematen ez zaion bitartean, etekin ekonomikoaren bila joango da gero ere.

Bitartean, ingurumenarekiko ardurak bultzatuta eta herrietako kutsaduratik ihes egiteko, gizartea gero eta gehiago baso bariatuek eskatzen ari da. Etekin ekonomiko urria ematen duen baso mota nahi du gaurko gizarteak. Eta baliteke hori emateko prest dauden baserritarrak egon egotea.

Urrutira joan beharrik gabe, Urretxu-Zumarragan badaude oraindik kontserbatzea mereziko luketen harizti eta pagadiak, bakanak, baina ederrak.

KALITATEAREN BALIO ERANTSIA

Kalitatea ordaindu beharra dago. Gero eta onartuago dagoen kontzeptua da hori. Baserriko ogia, sagarrak edota arrautzak garestiago ikusten ditugu azokan. Naturaltasun eta kalitatearen balio erantsia ordaintzen diogu baserritarrari bere produktuak erostean.

Baina naturaren alde egiten duen lana ere ordaintzeko prest egongo ote ginatete? Guztiontzat mesedegarri izango litzatekeen tratu klaseren bat ez ote dezakegu egin?: "Zuk kontserbatu eta zaindu ezazu pagadi edo harizti hori, hor ez sartu pinurik, eta hori eginda lortzen ez duzun etekin ekonomikoa gizarteak emango dizu".


KATALUNYAKO EREDUA

Katalunyan artistak dira diruari zukua ateratzen. Topikoa izango da, agian, baina gastatu behar denean, nola gastatu bada kitela erakutsi izan dute askotan. Eta orain ere bai. Baso autoktonoak kontserbatzeko formula asmatu dute: esponsorizazioa. Enpresa batzuek kirol taldeak esponsorizatzen dituzten bezala, han baso jabeak dira esponsorizatuak. Bi aldeek akordio bat sinatzen dute. Enpresak hainbesteko diru kopurua eman behar dio basojabeari eta honek hitz ematen du basoa kontserbatu eta zaindu egingo duela gutxienez halako urtera arte.

ETA HEMEN ZER?

Nik ez dakit horrelako hitzarmenik izenpetzeko borondaterik izan dezakeen enpresarik egongo ote den hemen. Agian bakkarren bat animatu liteke zergak arintzearen truke. Aprobata egin behar. Baina udal agentarietako zerbait egin beharko luketela iruditzen zait. Erakuslehoak dotoretzen dituzten dendariak, edota balkoiak txukun-txukun jartzen dituzten hiritarrak saritzen diren moduan, zergatik ez ingurumena zaintzen duten baserritarrak saritu? Gure oso gertuko herri batean, diru kopuru bat jartzen hasi dira udal aurrekontuetan zeregin horretarako. Eta ahalegin horrek emaitzarik izango duelakoan nago. Ea Urretxu-Zumarragan ere horrelako zerbait egiterik badagoen...

autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako
mintegiak



Informatika nire enpresarako: Askea ala ordaindutakoa?

Aplikazio informatikoen merkatua oso zabala da, baina, **nire enpresarako softwarea** hautatzerakoan zein da kontuan izan behar dudan irizpidea? Zein **istema eragile** hautatuko dut? Ze **nabigatzaile**?, bestelako ze **programa ofimatiko**? Galdera hauei eta suertatu daitezkeen beste hainbateri erantzuteko asmoz zenbait irizpide emango dizkizugu mintegi honetan, eta **zure enpresan** doan **erabiltzeko** tresnak dituen **CDa** ere **emango** dizugu.

Urola Garaia
urtarrilak 31
ZUMARRAGA
Urola Garaiko Fundazioa
(UGLE)

Ordutegia:
18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:

943 747 314

www.miramondigital.com

cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:



Miramón
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

:-) euskadi

e.gipuzkoa SPRI

Ramon Esnaola, herriko r



Ez dago nahikoa eskertzerik Ramon Esnaolak Urretxun eta Zumarragan musikaren alde egin duen lana. Gerraren hasierarekin kontserbatoriora joateko aukera galdu zuen, baina bi herriok musikari handi bat irabazi zuten: Orbegozoko lanetik kanpo, makina bat instrumentu jotzen ikasi zuen, Urretxuko eta Legazpiko musika bandak zuzendu zituen, hainbat musika taldetan jo zuen, txistuzaletasunaren salbatzaile izan zen, Musika Eskolako sortzailea ere bai... Beti umoretsu, beti alai, musika maite du eta maitatzen irakatsi du.

Zein familiatan jaio zinen, Ramon?

Urretxun jaio nintzen 1916ko azaroaren 2an. Goiko Kalen etorri nintzen mundura, baina gero Beasainera joan ginen bizitzera. Aitak saskigintzan lan egiten zuen eta, zazpi bat urte nituela, han lan egiteko deitu zioten. Ordurarte Zumarragan aritu zen, Artiz auzoan, baina Beasainen zumearekin ere lan egiten zuten Aranakoek soldata hobia eskaini zioten.

Nolatan itzuli zineten jaioterrira?

Gurasoak eta anaia-arrebak Beasainen gelditu ziren, baina ni Eitzan bizi ziren aitona-amonengana etorri nintzen. Izan ere, aitari lagun batek Orbegozon niretzako lana zegoela esan zion eta bidali egin ninduten. 1932an-edo familia osoa itzuli zen herrira: aita Buscanean lan egitera etorri zen.

Nola gogoratzen duzu haurtzaroko herria?

Jauregi kalean, Goiko Kalen, eman nuen haurtzarora. Eskola ere bertan genuen. Ni umea nintzenean goiko kalea, Jauregi, eta beheko kalea, Iparragirre, besterik ez zeuden ia. Geltokira joatea bekatua zen, oso urrun zegoen. Sute bat egon zela eta geltokira joan ginela gogoratzen dut. Mutikoak korrikan joan ginen sutea ikustera, baina itzuli ere azkar egin ginen. Ez genuen hura ezagutzen.

Zer moduz moldatzen zinen eskolan?

Primeran. "Agustina la coja" zen irakaslea. Azkarra omen nintzen: ni baino zaharragoei irakurtzen irakasteko agintzen zidan irakasleak. Oparitan, goxokiren bat edo txokolate apur bat ematen zidan. Beasainera joan ginean eskolan jarraitu nuen, baina 10 urterekin saski fabriketan lanean hasi nintzen: enkarguak egiten-eta.

musikarien maisu

Musikan ere primeran moldatzen zinen, nolatan hasi zinen?

Aita ere musikaria izan zen: klarinetea jo zuen Urretxuko, Zumarragako eta Beasaingo bandetan. 8 urterekin Loinaz abesbatza sortu zuen Iguainekin musika klaseak jasotzen hasi nintzen. Iguain organujolea eta musika bandako zuzendaria zen. Musikarako erraztasun handia nuenez, egun bakarrean zortzi ikasgai ematen zizkidan. 10 urterekin bandan piccolo jotzen hasi nintzen. Zumarragara etorri nintzenean, berriz, Severo Paternainek klarinetea jotzen irakatsi zidan. 15 urterekin Orbegozon lanean hasi nintzen, baina orduak eta orduak ematen nituen klarinetea jotzen. Musika bandan hasi eta bi urtera klarinete nagusi jarri ninduten.

Jubilatu bitartean Orbegozon lan egin al zenuen?

15 urte nituenetik duela ia 30 urte arte, jubilatu nintzen arte, Orbegozon lan egin nuen, gerra garaiko zazpi urte kenduta. Ikastea gustuko nuen eta bi urtetan, lanetik irten ondoren, mekanografia ikasi nuen. Horri esker enkargatu-edo egon nintzen. Materialaren sarreraz eta irteeraz arduratzen nintzen. Gustura egon nintzen eta ondo ikusia nengoen. Denetik zegoen: Francoren aldekoak, langile iraultzaileak...

Gerra bizitzea ere tokatu zitzaizula esan duzu.

Bolondres joan nintzen. 19 urterekin atera nintzen etxetik eta 26rekin itzuli nintzen. Loiola batailoian egon nintzen preso egin gintuzten arte. Italiarrek atxilotu gintuzten Kantabriako Limpas herrian. Laredon eta Castro Urdialesen ere eduki gintuzten, eskola batean. Erreketeek eta falangistek ilaran jartzeko esan eta batzuk atera egiten zituzten. Ateratzen zituztenak afusilatu egiten zituzten. Castrotik Santoñara eraman gintuzten eta handik Sevillara, Sanlucar la Mayorrera, errepideak egitera. Cadizen eta Badajozen ere izan ginen, italiarrentzat pistak egiten. Lizentziatu eta etxera bidali gintuzten, baina handik gutxira berriro deitu ziguten.

Bigarren aldia lehenengoa baino okerragoa izan zen.

Zergatik izan zen bada okerragoa?

Bigarren Mundu Gerra hasi zen eta Espainia alemaniarren alde zegoen: denetik bidaltzen zieten eta guretzat ez zegoen ezer. Urretxu eta Zumarragako sei elkarrekin egon ginen: Teodoro Lasa, Leon Arrieta, Cirilo Araiztegi, Matias Ormaetxea, Marciano Castrillo eta ni. Leon Arrieta ilea-paintzaile ona zen eta ofizialei ilea moztzen jarri zuten, Teodoro Lasak bankuan lan egiten zuen eta ofizian sartu zuten. Matias ere entxufatu zuten. Cirilok, Marcianok eta nik oso gaizki pasatu genuen. Bitan pasa nintzen ospitaletik. 23 urterekin 42 kilo pisa-

“Gerrara bolondres joan nintzen. 19 urterekin atera eta 26rekin itzuli nintzen”

tzen nituen, arropa eta guzti! Zorriak, potrozorriak, hazteria... izan nituen. Gutakoa zela ikusten zen nafar lekaima batek arropa eman zidan eta arratsaldero pasiatzera ateratzeko esan zidan, bera arduratuko zela atezaindegiaz. Ondoren, soldadu egin ninduten eta Orensera bidali ninduten. Han ederki egon ginen: egunero genuen jateko eta ondo lo egiteko aukera.

Zer egin zenuen aske utzi zintuztenean?


Lehen egunean lanera joan nintzen dagoeneko.

Musikarekin ere jarraituko zenuen...

Etxean behar handia zegoenez, 12 anaia-arreba ginen, *Los bohemios del Goierri* musika taldean jotzen hasi nintzen. Beasainen, Ordizian... jotzen genuen: inguruko festa guztietan. Gure musikarekin dantza egin nahi zuenari txartel bat ematen genion pezeta baten truke.

Herri Aldizkaria
Otamotz
aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.
Merkea eta ona!

Yarmanki
Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13


ALTZARIAK
MERKA-UROLA
Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

centro óptico
JAVIER Arratibel
optika
Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak
Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84


ARKUPE TABERNA

ZUEK BAI JAKINI!

Ramon Esnaola, erdi-erdian, Zumarragako Musika Bandakoekin, 1991n.



Urretxuko Musika Tailerrako banda zuzentzen, 1995ean.



Talde gehiagotan ere jo zenuen.

Tolosako *Beotibar* orkestran ere jo nuen. Klarineta eta saxoa jotzen nuen. Nafarroan asko jotzen genuen eta ondo kobratzen genuen. Janari falta zegoenez, ahal genuen guztietan maleta janariz beteta ekartzen genuen. Hiruzpalau egun ematen genituen etxetik kanpo eta diru asko ekartzen genuen etxera. Baina lanean kale egiten nuen askotan eta horregatik utzi behar izan nuen.

Urola orkestra ere sortu zenuen.

Jesus Gonzalez Bastida Zumarragako bandako zuzendariarekin hika-mikak izan genituen eta banda eta bandako jendez osatutako orkestra utzi genituen. *Urola* orkestra sortu eta ia astero ezkontzaren batetan jotzen genuen. Orkestra honek duela 20 bat urte utzi zion jotzeari.

Parrandarako makina bat aukera izan zenituen. Zalea al zinen?

Ez dut sekula gustuko izan. Taldekide batzuk, ordea... Nafarroan, batez ere, analfabetismo handia zegoen eta musikariok jainkoak ginen. Herritarren etxeetan ostatu hartzen genuen eta batzuek etxekoan alabarekin lo egiten zuten.

Banda askotan ere jo zenuen.

Urretxuko eta Zumarragako bandetan jotzen nuen, txandaka: bi pieza Zumarragan, bi Urretxun, bi Zumarragan, bi Urretxun eta, azkenik, hiruna. Bergararik, Beasaindik, Ordiziatik... ere

deitzen zidaten. Igandetan eta jaiegunetan dantzaldia izaten zen, baina Garizuman dantza egitea bekatua zen. Saxofoia jotzen ere ikasi nuen eta, pixkanaka, bandak utzi nituen. Izan ere, orkestretan bandetan baino diru gehiago irabazten zen.

Banda zuzendaria ere izan zara.

Legazpiko bandako zuzendaria zen Gorrotxa hil zenean zuzendari egin ninduten. Urretxuko Musika Tailerra sortu zenean ere, zuzendari egin ninduten.

“Txistulari banda gazteena izan nuen: gazteenak 7 urte zituen eta zaharrenak 12”

Besteek bezala kobratzen nuen, baina musika horren gainetik egon da beti niretzat. Koadrilako batek ez dudala batere gastatzen esan zion behin nire lagun min bati, ez baitut sekula ez erre eta ez edan. "Egia esan dizu", esan nion, "baina nik 300.000 eta 150.000 pezeta kosta zitzaizkidan pianoa eta saxofoia ditut etxean".

Nolatan erabaki zenuen txistua jotzen ikastea?

Zumarragan hirukoteak jotzen

zuen aspalditik: Okarizek, Zenekortak eta San Pedrok. Duela 50 bat urte, Zumarragako Bandan nirekin jotzen zuten Jose Telleriak horiek kale egingo zuten egunean txistua herritik desagertuko zela esan zidan. "Ez da desagertuko, ni hasi behar naiz eta", esan nion. Martin Zenekortarengana joan nintzen eta ez zidala irakatsiko esan zidan. Adiskide handiak ginen eta beranduago barkamena eskatu zidan, baina ez zidan irakatsi. Hori dela eta, hurrengo larunbatean Donostiako Erviti dendara joan eta txistua eta ikasteko metodoa erosi nituen. Txistua jotzen ikasi nuenean, besteei irakasten hasi nintzen. Lehenengo etxekoei irakatsi nien: bi alabei eta bost ilobei. Txistulari banda gazteena izan nuen: gazteenak 7 urte zituen eta zaharrenak 12. Txistua garesti irten zait niri... Izan ere, 17 txistu doan eman ditut. Jende askok ikasi zuen nirekin txistua jotzen. Denborarekin utzi egiten zuten, baina normala da.

Zuk ere jo zenuen.

Baita Zumarragako txistulariekin ere... Pascual Okariz gaixo jarri zen eta bere ordezkari hasi nintzen. Bi urte eman nituen Zumarragan txistua jotzen, Pascual sendatu zen arte.

Solfeo irakaslea ere izan zinen.

Gurasoen Elkarteko Javier Biainek eskatuta hasi nintzen, dagoeneko jubilatuta nengoela. Ondoren, Secundino Esnaola Musika Eskola sortu zen eta Gurasoen Elkarteko guztiok hartu gintuz-

ZUEK BAI JAKIN!

Zumarragako txistulari eta Ezpata Dantzarekin 1955ean.



ten. Txistu eta solfeo klaseak eman nituen, Zelai-Arizti ikastetxean. 1995ean utzi nuen musika jarduera.

Musika izan da zure afizio ia bakarra.

Asko gustatu zait. Beste batzuk txikitoak hartzen ibiltzen ziren... Nik gerra garaian utzi nion ardoa edateari, ez dakit zergatik. Frontean ematen ziguten ardo-errazioa lagunari ematen nion. Ardoa gusta-

“Medikuarenera joan eta zer da ikasten ari zaren hori? galdetu zidan. Utzi ezazu, gehiegitxo baita”

tuko balitzait, egarria izanda soilik edango nukeen. Izan ere, jendeak egarririk gabe edaten du eta goserik gabe jaten du. Horrek amorrua ematen dit, ez dut ulertzen. Erre ere ez dut egin.

Dena den, futbola ere gustuko zenuen.

Oso gustuko nuen, baina utzi egin nuen. "El peque" dietzen zidaten. Eskuineko barnekoa nintzen eta abilezia nuela esaten zidaten. Egun ez dut futbola atsegin, korrika lasterketak ditut gustuko. Futbolariak zenbat kobratzen duten ikusteak amorrua ematen dit. Kirol moduan ondo dago, baina

medikuei ez ematea eta futbolariari halako dirutza ordaintzea...

Musika utzi zenuenetik, zertan ematen duzu eguna?

Pasiaztea eta egunkarian ikusten ditudan intereseko gauzak moztea eta gordetzea gustatzen zait. Musika idaztea oso gustuko dut. Txistuarekin jotzeko 32 pieza egin ditut, Legazpiko ereserkia ere bai... Azkena valsa idatzi dut, baina dagoeneko ez nago musika idazteko moduan. Ikusmen arazoak ditut eta notak mugitu egiten zaizkit. Buruan musika dut, baina ez dut hori idazterik.

Bestalde, duela gutxi arte musika ikasten jarraitu duzu.

Biolontxeloa jotzen ere aritu nintzen, Musika Eskolan. Utzi egin behar izan nuen, kalte egiten baitzidan. Medikuarenera joan eta "zer da orain ikasten ari zaren hori?" galdetu zidan. "Utzi ezazu, gehiegitxo baita dagoeneko". Bestalde, hiru urte eman nituen Mila Osinalderekin pianoa ikasten. Ez zidan batere kobratu.

Musikarako halako zaletasuna eta dohaina izanik, lastima gehiago ikasteko aukera ez izana...


Soldaduskara bolondres joateko asmoa nuen, bertako musika bandan jatekoa eta kontserbatorioan ikasteko aukera ematen baitzuten. Fitxa betea nuen, baina gerra hasi zen. Ikasteko aukera izan banu noraino heldu ote nintzen? Auskalo. Beharbada porrot egingo nuen, baina...

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



BAPRI

ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak,
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA



Joana Carro, gurpil ga

Urretxuarrak patinaia ikastaroak ematen

Badira urte batzuk patinak haurren kontu gisa hartzeari utzi zitzaiola. Geroz eta heldu gehiago dira patinen gainean irrist egitea zer den probatu dutenak. Urretxu-Zumarragan Ispilla kiroldegiak zaletasun hau bultzatzen eta indartzen lagundu du, ikastaroak antolatuz. Joana Carrok lehen ikastaroan parte hartu zuen eta, egun, bera da patinaia irakaslea.

Noiz hasi zinen ibiltzen?

1997an-edo Zumarragako kiroldegiak ikastaro bat antolatu zuen eta orduan ikasi nuen, Beasaingo batek irakatsita. Dena den, joan aurretik dexente kontrolatzen nuen dagoeneko. Lehen ikastaro hura Beloki pilotalekuan eman zen eta oso giro ona genuen. Pentsa, ikastaroa bukatu ondoren parte hartu genuenok astean behin gauzez elkartzen ginen ibiltzeko! Denborarekin jendea apur bat nagitu egin zen eta bakoitza bere aldetik ateratzen hasi ginen.

Zer ikasten da halako ikastaro batean?

Lehenengo oreka lantzen da. Ondoren aurrera joaten eta galgatzen ikasten da. Galgatzen ikastea oso garrantzitsua da: batzuk zuhaitzei helduta gelditzen dira... Gero atzeraka ibiltzen, oztupoak gaintzen... ikasten da. Izan ere, gehienetan kalean patinatzen dugu eta hor beti dago oztoporen bat. Ikastaroetan hockeyan ere jokatzeko dugu. Ikasleei asko gustatzen zaie eta beldurra galtzeko oso ariketa ona da: jendea partidaren murgiltzen da eta patinen gainean ari dela ahazten du.

Ikastaroak pilotalekuan ematen dituzuela esan duzu, hori al da patinatzeko tokirik egokiena?

Bai, hortik ateratzen garen komeriak... Izan ere, pilotalekuan patinek askoz ere hobeto irristatzen dute eta dena errazago ateratzen da. Patinatzaileok Zelai-Arztiko pilotalekuan eta Pagoetako parkean ere ibiltzen gara. Bidegorria ere ondo dago. Trintxeran, berriz, ez du horrenbeste irrist egiten. Garai batean,

linean gustuen

n ditu Ispilla kiroldegian

lehen ikastaroan parte hartu genuenok gaue-
tan elkartzen ginenean, herriari buelta eman
geniola oroitzen dut; baina hori arriskutsu
samarra da. Bidegorrian oinezko batzuen
errietak entzun behar izaten ditugu, baina
kasurik ez egin eta kitto! Dena den, argi
dago bertan poliki ibili behar dela.

Negua ez duzue garairik onena izango...

Euria egiten duenetan ez dugu non
patinatu. Irrist egiten da eta, gainera, erroda-
menduetan ura sartuz gero, akabo!
Pilotalekuak alokatu egin daitezke, baina ez
dakit patinetan ibiltzeko hartzen utziko ligu-
keten. Hurrengo ikastaroan izena ematen
dutenekin hitz egin beharko dut eta, behar-
bada, bukatzen dutenean, pilotalekua alo-
katzen saiatu.

Noiz hasi zinen ikastaroak ematen?

Duela bizpahiru urte. Zumarragako
kiroldegitik deitu zidaten. Lehen ikastaroan
parte hartu genuenon zerrenda erabilita

“Helduei gehiago
kostatzen zaie, baina
hauentzat ere jolasak
oso lagungarriak dira”

gingo zutela pentsatzen dut. Haurrei bi edo
hiru udatan irakatsi diet eta helduei beste
hiru aldiz. Helduen klaseak lau larunbatetan
jarraian ematen ditut eta ordu eta erdiko
luzapena izaten dute.

Haurren eta helduen artean alde handiak izango dira.

Haurrei jolasen bidez irakasten
diet. Helduei gehiago kostatzen zaie, baina
hauentzat ere jolasak oso lagungarriak dira.
Azken ikastaroan 12 laguneko bi talde izan
ditut.

Zer nolako jendeak ematen du izena?

Adinaren aldetik, denetik egoten
da: azken ikastaroan gazteenak 18 urte izan-
go zituen eta zaharrenak 45 bat. Normalean
emakume gehiagok parte hartzen dute,
baina gizonezkoak ere etortzen dira. Hori
asko gustatzen zait, bestela patinaia emaku-
meon kontua dela dirudi. Ikastaroa hasibe-
rrirentzat pentsatua dago, baina denetik
dago. Patinak lehen aldiz jartzen dituztenak
kikilduta etortzen dira, baina azkenean mol-
datzen dira. Batzuek ikastaro baten baino
gehiagotan parte hartzen dute, hala badakite
ibiltzen jarraituko dutela. Izan ere, bakarrik
irtetea kosta egiten da.

Noiz izango da hurrengo ikastaroa?

Udaberri aldean izango dela uste
dut. Dena den, neguan ere antola daiteke,
klaseak estalpean izaten baitira.

Zaletasunak gora egin al du?

Bai. Nire ustez lehen jendeak beste
batzuk ikusi eta kuriosidadea sentitzen
zuen, baina ez zuen nola hasi. Ikastaroek
zaletasuna zabaltzen lagundu dute. Jendea
patinatzerantz animatu nahi dut. Ikastaroetan,
ikasteaz gain, primeran pasatzen dugu.
Kirol osoa eta dibertigarria da.

Asko ibiltzen al zara?

Udaberrietik aurrera ia gauero irte-
ten naiz, engantxatu egiten du. Erlaxatzeko
oso lagungarria zait, patinatzen ari zarela
eguneroko buruhausteak ahazten baitituzu.

Luzaroan ikastaroak ematen jarraitzeko asmoa al duzu?

Patinaia entrenatzaile titulua atera
nahi dut. Horretarako, Iruñeara joan behar
da. Tituluarekin nire kabuz ikastaroak anto-
latzeko aukera izango nuke eta edozein
kiroldegitan neure burua aurkezteko ere
errazago izango nuke. Klaseak ematen
jarraitu nahi dut. Izan ere, lan hau asko atse-
gin dut eta jendea gustura ari dela ikusita,
orduak eta gusturago lan egiten da.




HARATEGIA URDAITEGIA
☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA



Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



arropa informala
Barrenkale
Urretxu
943 72 40 57



ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



Maite Zaldua

Maite Zaldua euskara irakasle eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiko (EBPN) teknikaria dena, zumarragar peto-petoa dugu: Kalebarrenen jaioren, aita eta ama ere Zumarragakoak ditu eta bertan bizi da, gainera. Ikasketak ere Zumarragan hasi zituen. "Mojetan ikasi nuen Institutura joan nintzen arte. Handik Bilbora joan nintzen biologia ikastera. Ez nengil oso ondo eta hiru urte ondoren magisteritza egitea erabaki nuen".

Sei bat urte eman zituen Bizkaian eta horrek arrastoa utzi zuen. "Uda bertan ematen dugu. Izeba bat genuen Bilbon eta lehen urteak berarekin eman genituen ahizpak eta biok, baina bakarrik egon nahi genuen eta bere Plentziako etxera joan ginen gero. Oso gustuko dut eta bertara joaten gara oporretan".

Ikasketak bukatu bezain pronto herrira itzuli zen. "Euskaltegia joan nintzen alfabetatze ikastaroa egi-tera, Xabier Mendigurenekin, eta hurrengo ikasturtean bertan lanean hasi nintzen".

Maite Zalduak ia 20 urte daramatza dagoeneko Udal Euskaltegian lanean. "Urte hauetan guztietan irakasle asko pasatu dira eta dagoeneko ni naiz urte gehien daramatzana. Ikasleak ere asko aldatu dira: lehen- goen motibazioa hitz egitea zen eta oraingoena, berriz, azterketak gaintzea. Presioa handiagoa da, bai beraientzat eta bai guretzat".

Iaz Urretxu eta Zumarragako Udalek EBPN aurrera ateratzeko bigarren teknikaria jartzea erabaki zuten eta Maiteri tokatu zitzaion. Goizean Udaletxean lan egiten du eta arratsaldean euskaltegiko ikasleei klase ematen die. "Beldurrez hasi nintzen, baina moldatu naiz. Euskaltegikoarekin alderatu oso lan desberdina da. Alor asko ikutzen ditugu: mintzalaguna, eskola kirola, merkataritza... Ez da esker oso oneko lana: gauzak egiten dira, baina ez dira asko ikusten".

Azkenaldian, ordea, arrakasta itzela izan dute erretzeari buruzko karteekin. Dagoeneko 200dik gora egin dituzte herriko ostalariak eta merkatariek eskatuta eta, gainera, kanpotik ere deitu diete eskean. "Gaur bertan Sorluzetik deitu dute: Eusko Jaurlaritzakoek ereduak ateratzeko asmorik ez dutela eta gureen eske".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Ez nuen "andereño izan nahi dut" eta halakorik pentsa-zen. *Feliziana* samarra nintzen. Gero, eskolan, zientziak nituen gustuko.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Irakurtzea, pasiatzea, hondartzara joatea, jendearekin kafetxea hartzea... la egunero irakurtzen dut, gehienbat nobela. Misterioa asko atsegin dut, baita zinean ere. 12-13 urterekin Agatha Christie-ren nobelak irakurtzen nituela oroitzen dut.

-Bizitzeko toki bat?

Hauxe edo kostaldeko herriren bat.

-Ileheriak ala beltzaranak?

Berdin da.

-Egindako azken oparia?

Play Station-erako joko bat.

-Eta jasotakoa?

Lepoko bat.

-Data bat?

Umea jaioren eguna, 1992ko urriaren 15a. Beno, jada ez da horren umea...

-Neska eta mutil izen bana?

Mutil izena Unai, semearena, eta neska izena Ane.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

DV, Berria eta Hitza.

-Gustuko telebista saioa?

CSI. Lehen kapitulua ikusi egiten dut eta bigarrena, berriz, grabatu.

-Bereziki gorroto duzuna?

Klaudio Landarena, Patricia Gaztañagarena-eta. "Gran Hermano" ere ez dut atsegin.

-Liburu bat?

"El perfume".

-Filme bat?

"El nombre de la rosa" oso berezia iruditu zitzaidan. Lehenago liburua irakurri nuen, baina pelikulako karakterizazioa oso berezia iruditu zitzaidan. Oraindik ere berri- ro ikusi behar dut!

-Soinu bat?

Olatuena.

-Usain bat?

Kafearena.

-Janari bat?

Patata tortilla.

-Ura ala...

Ardoa, baina freskoa.

URRETXU
ZUMARRAGA



IKASTOLA

IZAN DIRELAKO GARA, GARELAKO IZANGO DIRA



Izena emateko epea: otsailaren 6tik 17ra

Informazio bilerak: otsailaren 7an (euskaraz) eta 8an (gaztelaniaz), 18:30ean Ikastolan

☎ 943 72 00 26

**Eskola Publikoa:
zuen aukera
gure etorkizuna,
zatozte ikustera!!!**



**Matrikula epea:
Otsailaren 6tik 17ra bitartean**



Tel.-fax: 943 72 12 14
e-mail: 012284aa@hezkuntza.net
Sta. Barbara bidea z/g. - Urretxu

Tel.-fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
e-mail: jmiparragirre@edunet.es
Sta. Barbara bidea z/g. - Urretxu